



Getxo

bizi ezazu

Orri kopurua / Nº de páginas:

Data / Fecha:

PRENTSA-OHARRA / NOTA DE PRENSA

Lehenengo fasea urtarrilaren 24tik otsailaren 6ra bitartean garatuko da
2021eko aurrekontu parte-hartzaileak

Urtarrilaren 24tik otsailaren 6ra bitartean 2021eko aurrekontu parte-hartzaileen lehenengo fasea garatuko da. Prozesu hori 2017tik dago finkatuta Getxon, eta herritarrek erraz eta argi egin ditzakete ekarpenak. "*Parte-hartzearen aldeko apustua egiten jarraitzen dugu*", azpimarratu du Amaia Aguirre alkateak, "*eta espero dugu aurtengo edizioak harrera ona izatea Getxoko herritarren aldetik*". Amaia Aguirrek azaldu duenez, "*aurrekontu parte-hartzaileak tresna garrantzitsuak dira udal kudeaketarako, aukera ematen baitigute Getxon bizitzeko, lan egiteko eta gozatzeko herritarrek eskatzen dituzten ideiak eta proposamenak txertatzeko*".

Aurrekoetan bezala, getxotarrek proposamenak aurkeztu ahal izango dituzte, eta horiek aztertu eta aintzat hartuko dira, betiere udal eskumenekoak badira, lurraldearen oreka mantentzen badituzte eta teknika edota ekonomia aldetik bideragarriak badira. Ekarpenean arlo hauekin egon daitezke erlaxionatuta: Euskara, Gazteria, Sustapen Ekonomikoa edo Turismoa, Berdintasuna, Ingurumena, Segurtasuna, Giza Zerbitzuak, Hirigintza, Kultura eta Kirola. EZ dira aintzat hartuko udal eskumenekoak EZ diren proposamenak edo teknika edo/eta ekonomia aldetik bideragarri eta jasangarri EZ diren proposamenak.

Prozedura

Proposamenak Getxon erroldatuta dagoen 16 urtetik gorako edozein pertsonak aurkez ditzake; Getxoko Udalaren Erakundeen Erregistroan inskribatuta dagoen edozein erakundek eta edozein elkartek, fundaziok, sindikatuk, enpresen elkartek, elkargo profesionalek, zuzenbide publikoko korporazioak edo beste era bateko erakundeek, antolamendu juridikoan ezarri denarekin bat etorriz, nortasun juridikoa badute eta euren sozietate-egoitza edo establezimendu iraunkorra Getxon badago.

Proposamenak aurrez aurre edo *online* egin daitezke eta jasotzeko ezarritako bideak ondorengo hauek izango dira:

1. Udal webgunean erabilgarri dagoen inprimaki digitala betez www.getxo.eus/partehartu
2. Herritarren Arretarako Bulegoetan (HAB) eta Andra Mari, Gobela eta Fadurako kiroldegietan jarriko diren kutxetan erabilgarri dagoen inprimakia betez eta entregatuz.



Getxo

bizi ezazu

3. Proposamena(k) (eskaneatutako eranskin gisa) helbide elektronikoa honetara bidaliz: gobernuirekia@getxo.eus
4. Algorta, Areeta eta Bidezabal geltokien inguruan jarriko diren postontzietan inprimakia sartuz.
5. Metro geltoki inguruetan jarriko diren karpa informatiboetan: Bidezabal (urtarrilak 29, asteazkena), Algorta (hilak 30, osteguna) eta Areeta (hilak 31, ostirala).

Proposamenak aurkezteko azken eguna 2020ko otsailaren 6a izango da.

Ondoren, Udaleko zerbitzu teknikoek aztertuko dute herritarrek aurkeztutako proposamenen bideragarritasuna, ekonomia zein teknikari begira. Baldintzak betetzen dituzten proposamenak proiektu bilakatuko dira.

Udalak jakinaraziko du hautatutako proiektuen behin betiko zerrenda eta, bigarren fasean, Getxoko bizilagunek lehenetsiko dituzte proiektuak. Behin prozesua amaituta, herritarrentzako itzultze-txostena idatziko da eta bertan justifikatuko dira hartutako proposamenak eta erabakiak.

Informazio gehiago:

<https://www.getxo.eus/eu/gobierno-abierto/participacion/presupuestos-participativos-2021/>

GetxoUdala  

Prentsa Bulegoa: 94 466 03 20.

Eskatzen dizuegu ohar hau zabaltzea. Eskertzen dizuegu halako arreta izatea beti. Adeitasunez.